

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Taldearen helburua lortzeko eta enpresa aurrera eramateko bakoitzak bere aldetik jarri behar du, horretarako atal honetan, bakoitzak zer jarriko duen azpimarratuko dugu.

Hasteko, baliabide fisikoak ezinbestekoak dira gure enpresan. Dena prestatzeko eta deiak egiteko bulego bat beharko dugu, horregatik “UGGASA” enpresarekin alokatuko dugu bulegoa. Maketak egiteko materiala beharko dugu, hala nola, kartoia, tenperak, kola etab. Ondoren lokalean inprimagailu bat, ordenagailu bat, eta lokalean mugikor bat edukiko ditugu. Baliabide fisikoekin bukatzeko, garraioa behar dugu, horretarako, gure taldekide baten furgoneta erabiliko dugu.

Gure enpresa martxan jartzeko dirua inbertituko dugu. Bakoitzak 1.250€ jarriko du, hau da 5.000€ guztira. Baliabide fisikoaren kostuak kalkulatu ondoren hau da egokien iruditzen zaiguna. Horrez gain, bankuari mailegu bat eskatuko diogu pentsatzen dugulako guk inbertitu behar dugun dirua ez dela nahikoa izango, horregatik proposamen hau hitz egin dugu gure artean eta erabaki dugu 100.000€-ko mailegua eskatuko dugula, gure enpresari hasiera bat emateko uste dugu diru honekin nahikoa izango dela.



Beste alde batetik, oinarrizkoak iruditzen zaizkigu giza baliabideak, hau da, bakoitzak ze aportatu dezakeen enpresarentzat, zorionez, umeein esperientzia handia daukagu, Ibon entrenatzailea izan da saski baloiko talde batean, Alainez praktikak egin ditu eskola batean eta Maria eta Marina udaleku batean aritu dira bi udatan.

Lan hauen bidez hainbat abilezia garatu ditugu. Adibidez, Ibonek bere lanean talde bat nola antolatu ikasi du; horregatik, bere abilezia nagusia antolakuntza da. Hizketaldiak ematerakoan, saioa ondo antolatuta egotea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Bestalde, Mariak eta Marinak pazientzia asko landu dute, hainbat egun hurrekin eman ondoren. Esperientzia horrek asko lagundu die pazientzia garatzen. Azkenik, Alainez jada klaseak emateko esperientzia du, eta beharrezkoak diren oinarrizko gaitasunak badakizki: gauzak nola azaldu, pazientzia izatea eta antolakuntza, besteak beste. Orokorrean, denok ikasi ditugu hurrekin lan egiteko beharrezkoak diren hainbat gaitasun gure lanen bidez. Hala ere, gehien lantzen dugun alderdia pazientzia da, gazteekin tratua kontu handiz egin behar baita; azken finean, haurrak dira, eta horrek pazientzia handia eskatzen du.



dezakegu.

Enpresa honek pazientziaz lan egiteaz gain, guri asko gustatzen zaigu hurrei laguntzea, haiek guretzat ikastea eta haiekin komunikatzea. Enpresa egin aurretik, zer lan izan ditugun argi gelditu da, guztia hurrekin eta zaletasunarekin du zerikusia eta egiten duzuna gustuko izatea da guretzat garrantzitsuena, eta guk asko gozatzen dugu hurrekin. Azkenean, etorkizunerako ikastea oso komenigarria da, eta lantalde polita sortu dezakegula uste dugu. Gainera, joaten garen bakoitzean ondo pasatu, antolakuntza on bat eduki eta pazientzia askorekin lortu

Gure ustez, mailegu bat eskatuz gero, errazagoa izango zaigu enpresa eramatea, eta bakoitzak bere aurrezkiak jarritz ere bai. Gero, bakoitzak ikastoletan eman dezakeen ekarpena da garrantzitsuena, eta bakoitzak enpresa bat hasteko duen esperientziarekin oso ondo etortzen zaizkigu, nahiz eta ikasten eta gauzak hobetzen jarraitu nahi dugun.